

**ENEKO GOIAREN URGENTZIAZKO AGERRALDI ESKAERA PARTE  
ZAHARREKO ZUMELTZEGI JATETXEAN IZANDAKO SUTEAREN ONDOTIK  
EGIN BEHARREKO ESKU-HARTZEEI BURUZKOA**

**JUSTIFIKAZIOA**

Otsailaren 19an, enegarren sutea izan zen Parte Zaharreko ostalaritza-establezimendu batean. Fermin Calbeton kaleko 15. zenbakiko Zumeltzegi tabernako sutearen ondoren, bi langile ospitaleratu zituzten intoxikazioagatik; eraikinean bizi diren pertsonak beren etxebizitzak utzi behar izan zituzten, eta jakinarazi zaienez, haietako batzuek ezin izango dute beren etxebizitzetara sartu bi hilabete igaro arte.

Auzotarren kezka agerikoa da, eta Udal Gobernuak berak ere kezka adierazi du. Hala ere, egoeraren larria ikusita, kezka adierazteaz harago, Udal Gobernuak Parte Zaharreko bizilagunei gutxieneko ziurtasuna eskaini behar diela uste dugu; besteak beste, Udalak programatuta dituen ikuskapen-protokoloak, balantzeak eta zenbat zehapen-espeditente ireki diren argitaratuz.

**AGERRALDI ESKAERA**

Hori dela eta, Juan Karlos Izagirrek, EH Bildu udal taldeko bozeramaileak, indarrean den Udalbatzaren Erregelamendu Organikoaren 100. artikuluari jarraiki, **ENEKO GOIA ALKATEAK UDALBATZAN URGENTZIAZKO AGERRALDIA** egin dezala eskatzen du, otsailaren 19an Parte Zaharreko Zumeltzegi jatetxean izandako sutearen ondoren Udal Gobernuak hartuko dituen neurriei eta, oro har, auzo horretan azkenaldian izandako suteei buruzkoa, eta besteak beste, honako hauek argitzeko: zer balorazio egiten

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

---

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

duen alkateak azken urtebetean Parte Zaharreko ostalaritza-establezimenduetan izandako suteen inguruan, zenbat ikuspaperen egin diren azken urtebetean, zenbat zehapen-espeditente ireki diren ikuskapen horietan eta zer ikuskapen-protokolo duen programatuta Udal Gobernuak.

Donostian, 2024ko otsailaren 21ean

Juan Karlos Izagirre  
**EH Bildu udal taldeko bozeramailea**